



etakitto.eus

(https://etakitto.eus/)

PDF-a (https://etakitto.eus/wp-content/uploads/2020/06/eta-kitto-1146-1.pdf)

DYAk esker ona adierazi die maskarak egiten lagundu duten boluntarioei

Gizartea (https://etakitto.eus/category/berriak/gizartea)

ETA
KITTO
2020,
MAR
25



Osasun zentroetan dagoen material eskasiari aurre egiteko herritarren kolaborazioa berebizikoa dihardu izaten egun hauetan. Atzo jakin genuen Udalak ehundaka maskara, eskularru eta bestelako osasun- eta higiene-material jaso (https://etakitto.eus/berriak/gizartea/elbartarrek-osasun-eta-higiene-material-ugari-eskaini-dute-san-andres-egoitzarako-eta-udal-zerbitzuetarako.html) zituela. Armeria Eskolan osasun langileek erabiltzen dituzten biserak hasi direla inprimatzen 3D inprimagailuekin (https://etakitto.eus/berriak/gizartea/3d-inprimagailuekin-babeserako-biserak-fabrikatzen-dihardute-armeria-eskolan.html) eta norbanako askok euren etxeetan fabrikatu dituztela maskara batzuk (Neama Fawzy (https://etakitto.eus/berriak/egiptoko-euskalduna.html)k bidalitako argazkian ikusten den bezala).

DYA (https://www.dyagipuzkoa.com/eu/)k ere martxan jarri zuen maskarak egiteko ekimena eta erantzun bikaina jaso zuen. Beharrak asetu dituzte eta egindako lana banatzen dihardute dagoeneko. Hala ere, zera adierazi dute sare sozialetan: "momenturen batean jende gehiago beharko balitz, jakinaraziko dugu".



Maskarak josteari buruz:

Momentu honetan beharrak beteta daude. MESEDEZ behar-beharrezko deiak baino ez egin telefono lineak ez saturatzeko.

Beharra sortzen bada, eskaera ofizialki egingo dugu. ESKERRIK ASKO!
(diariovascodiariorvasco.com/sociedad/emple...)

Webgune honek cookieak erabiltzen ditu, propioak eta beste batzurenak, pertsonalizazioak eta azterketakoak, gure zerbitzuak hobetu eta webgunean nabigazioaren informazio estatistikoa biltzeko. Cookieak politika.

ONARTU Gehiago irakurri (https://etakitto.eus/aldizkaria/cookieak-politika)